Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Maria Antonia Goikoetxea Elustondo

Zumaia, Gipuzkoa (1946)



Aurkibidea

Biografia



Zumaiako Erribera kalean jaioa (garai hartan Portu Kalea), 5 senideko familian. Aita zumaiarra zuen eta ama Beduakoa (Zestoa). Aitaren partetik familia musikazalea izan zuen; aitak berak solfeoa irakatsi eta saxofoia jotzen zuen, eta bandako zuzendari ere izan zen urte askoan. Maria Antoniak kanturako zaletasuna izan zuen txikitatik eta parrokiko koruko partaide izan zen. 12 urtera arte mojekin ikasi zuen eta 41 urte zituela eskola-graduatua atera zuen. 'Goiko' taberna ezaguna eduki zuen familiak, 1958an zabaldua. Erribera kalea eta inguruak izan dituen aldaketak, taberna giroko ohiturak edo txikitako jolasak, besteak beste, izan zituen hizketagai elkarrizketan.

Zintak

ZUM-111

- **Proiektua**: Zumaiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Data**: 2021-09-14
- **Iraupena**: 102 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Erribera kalean musikariz inguratuta

- **Erref**: ZUM-111/002
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:00:39. **Bukatu**: 00:04:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Erribera kalean bizi ziren, baina orduan "Calle Puerto" zeukan izena. Tarte batean "Domingo Agirre" izena ere izan zuen kaleak. Auzokideen artean oso

harreman ona zegoen. Aita bandako zuzendaria zen eta solfeo klaseak ematen zituen etxean. Inguruan musikari asko bizi ziren. Aurretik aitona ere bandako zuzendari izan zen eta aitak umetatik jotzen zuen saxofoia. 25 urte inguru eman zituen zuzendari gisa.

2. "Xaguenekuak" ezizena nondik datorren

- **Erref**: ZUM-111/003
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:04:23. **Bukatu**: 00:06:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura

Laburpena:
Aitonaren etxea gaur egun ez da existitzen baina garai batean etxe dotorea izango zen. "Zaguanenea" zuen izena. Aitaren familiari betidanik "Xaguenekuak" deitu izan diote. Etxea botatzerakoan jakin zuten ezizen hori nondik zetorren. Etxea non zegoen azaltzen du: Zubi-txiki ondoan, gaur egun Oiartzun etxea dagoenaren alboan. Hortik aurrera dena lubakiak ziren, Kantera baserriraino. Amak kontatzen zuen gaztetan Beduatik etortzen zirenean Kantera baserri inguruan oinetakoak aldatzen zituztela, herrira txukun sartzeko.

3. Gabon koruan 10 urterekin

- **Erref**: ZUM-111/004
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:06:49. **Bukatu**: 00:08:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Musika giroa txikitatik bizi izan du. 10-11 urterekin gabon koruan atera zen lehen aldiz. Karlos Gorostola zen zuzendaria orduan. Baserritarrez jantzita atera ziren. Eguraldi oso txarra egin zuen. Eskolan ere ekitaldiren bat egiten zenean han izango zen bera kantuan. Gerora parrokiko abesbatzan sartu zen.

4. Hiru abesbatza Zumaian

- **Erref**: ZUM-111/005
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:08:53. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Gabon koruan ibilitakoa zen eta gerora parrokiko abesbatzan sartu zen. Orduan Zumaian zegoen koru bakarra zen. Gerora jubilatuen korua sortu zen. Uste du Eduardo Zubia zela zuzendari. Umeen korua ere sortu zuten Agustin Zubimendi, Geni Doval eta Pili Aizpuruak.

5. Parrokiko koruaren errepertorioa

- **Erref**: ZUM-111/007
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:16:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Parrokiko koruan, kanta batzuk oso identifikatuta daude herriko jaiekin: San Pedro egunean, adibidez, "Tu es Petrus"; Mendekoste egunean, "Veni, Sancte Spiritus". Behin pizkunde egunean betiko Haendelen "Aleluya" aldatu eta beste bat kantatu zuten. Jendea ez zen gustura geratu. Arritokietako bezpera eguneko salbea urte mordoa doaz kantatzen. Soloa zeinek kantatu izen duen.

6. Mojen ikastetxean 12 urtera arte

- **Erref**: ZUM-111/011
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:19:53. **Bukatu**: 00:21:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Mojen Maria eta Jose ikastetxera joan zen. Josten ere irakasten zieten han. Non zegoen azaltzen du. Kapera bat zegoen eta mezan kantatu behar izaten zuten. 12 urterekin atera zen eskolatik.

7. 40 urterekin graduatu

- **Erref**: ZUM-111/012
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:21:32. **Bukatu**: 00:24:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
40 urterekin graduatua atera zuen. Umetan, beraien portalean helduentzako gau-eskolak ematen zituen maisu bat bizi zela gogoratzen zuen. Ea horrelako

zerbait egongo ote zen galdetu zuen udaletxean eta egun batean eskutitz bat iritsi zitzaion, helduentzako klaseak hasiko zirela esanez. 1987an graduatua lortu zuen. Graduondokoa ateratzekotan ibili zen baina lanean hasi zen (Txapartegi gozotegia hartu zuen, Aita Mari auzoan) eta ezinezkoa egin zitzaion.

8. Euskara eta gaztelera

- **Erref**: ZUM-111/013
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:24:57. **Bukatu**: 00:26:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Mojetan dena gazteleraz egiten zuten. Ondorioz etxean ere bi ahizpek erdaraz egiten zuten eta aitak errieta egiten zien. Etxeko hizkuntza euskara zen, amak ez baitzekien asko gazteleraz. Irratia, zinea... dena erdaraz zen.

9. Dena bekatu

- **Erref**: ZUM-111/014
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:26:17. **Bukatu**: 00:27:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Garai hartan elizak sekulako indarra zeukan. Txistua jotzeagatik "Ama Birjinak negar egiten zuela" esaten zioten. Dena bekatua zen. Behin neskatoak baloiaren gainetik saltoka jolasean zebiltzala emakume batek errieta egin zien.

10. "Mayores con reparo" sailkatutako filmak

- **Erref**: ZUM-111/015
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:27:11. **Bukatu**: 00:29:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
'Xirula' denda zena Arroiabeneko ikatz-almazena zen lehen. Haren ondoan zeuden luistarrak. Amaia zineman botako ziren filmen kartelak ipintzen zituzten. Adinaren arabera sailkatzen zituzten. "Mayores con reparo" (lotsadun helduak) izendatzen zituzten pixka bat "beroak" ziren filmak.

11. Euskararen kontrako mehatxua

- **Erref**: ZUM-111/017
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:29:51. **Bukatu**: 00:31:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
'Goiko' tabernan lanean zegoela gertatutakoa: talde bat kantari ari zen eta tabernan zen frantses batek euskarazko abesti bat entzutea gustatuko litzaiokeela esan zion Maria Antoniari. Gizon batek hori entzun eta denuntziatu egingo zituela mehatxu egin zien.

12. Auzoen arteko harremana

- **Erref**: ZUM-111/018
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:31:50. **Bukatu**: 00:32:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Auzokoen artean oso harreman ona zegoen. Kale berekoak elkarrekin ibiltzen ziren: Mari kalekoak, San Telmokoak, Erriberakoak...

13. Auzoen eta herrien arteko hizkeraren desberdintasunak

- **Erref**: ZUM-111/019
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:32:50. **Bukatu**: 00:36:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Kale edo auzoen artean ezberdintasunak zeuden hizkera aldetik. San Telmokoek hizkera itxiagoa egiten zuten. Ama Bedua auzokoa izanik, ez zuen egiten hain hizkera markatua. Galtzen ari diren formak. Bilobak euskaraz "normal" egiteko esan zion behin. Zumaiatik Getariara ere badago ezberdintasuna.

14. Alondegia ala Oxford?

- **Erref**: ZUM-111/021
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:37:50. **Bukatu**: 00:41:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Alondegiari "Oxford" deitzeak sumindu egiten du Maria Antonia. Belen Golmaio euskara teknikari zenarekin gaiari buruz hitz egin zuen. Baleike herri aldizkarian idatzi bat ere atera zuen. Bere garaian alondegia zertarako erabiltzen zen kontatzen du: baserritarrek produktuak pisatu eta zerga bat ordaindu behar izaten zuten. Maria Antoniaren aitak ardoa gordetzeko almazen gisa erabiltzen zuen zati bat. Beraientzat betidanik "alondegia" izan da. Lanbide Heziketako eskola jarri zutenean, broma gisa hasi ziren "Oxford" deitzen eta halaxe geratu da.

15. Fielatoa eta "txaperua"

- **Erref**: ZUM-111/022
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:41:34. **Bukatu**: 00:43:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Fielatoa gaur egun udaltzaingoa dagoen lekuan zegoen. Garai batean alondegian produktuak pisatu eta zergak kobratzen ziren, baina hura itxi zutenean, fielatora pasa zen eginkizun hura. Kanpoaldean kamioiak pisatzeko pisua zegoen. "Txaperua" Zumaian udaltzainari deitzeko erabiltzen den hitz berezi bat da. Txapa bat eramaten omen zuten paparrean eta hortik omen dator.

16. Moilako karga-deskarga lanak

- **Erref**: ZUM-111/023
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:43:13. **Bukatu**: 00:45:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:
Moilako karga-deskarga. Enpresa desberdinak aritzen ziren lan horretan: Gascue y Cruz, Artaza, Orbegozo... Azken honek burdinak itsasontziz ekarri, Zumaian deskargatu eta kamioiz Zumarragara eramaten zituen. Barra arriskutsua dauka Zumaiak (itotako 6 mutikoen istripua aipatzen du) eta itsaso txarra zenean Pasaian deskargatzen zuten. Moilako lan hori pixkanaka galduz joan zen. Arrantzako barku bakarra ezagutu du Zumaian, "Miguel Angel".

17. Goikon marinelen giro handia

- **Erref**: ZUM-111/024

- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:45:55. **Bukatu**: 00:47:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
Zumaiako jende asko joaten zen arrantzara Getariako barkuetan, baita Oriokoetan ere. Arrantzatik bueltan marinelei arraina banatzen zieten eta Goikora eramaten zuten prestatzeko. Antxoa izaten zen askotan, atuna noizean behin. Arrantzaleekin harreman handia izan zuten Goikon.

18. Goiko bodegoiaren hasiera

- **Erref**: ZUM-111/025
- **Iraupena**: 0:04:58. **Hasi**: 00:47:45. **Bukatu**: 00:52:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Goiko "zaharra" (anaiak berritu egin zuen geroago) aitak hartu zuen. Goiko pisuan "Gorriyenekoak" bizi ziren eta behean tailer txiki bat zuten. Hura alokairuan ipini zuten eta Maria Antoniaren aitak alokatu zuen. Horren aurretik, Santiago hondartzako lehenengo kantina izebak eduki zuen. Urtero muntatu eta desmuntatu egiten zuten. Azken urtean ez zuten desmuntatu eta itsasoak txikitu egin zien. Han geratu ziren altzari batzuk Goikon ipini ziren. Hasiera batean ogitarteko batzuk eta ardoa ematen zituzten, batez ere. Ardoa nola zerbitzatzen zuten: bi barrika txiki zeuden, iturriarekin, pitxer bat bete eta handik basoetara. Barriketan ardo beltza egoten zen, gorria garrafoietan. Porroia ere asko erabiltzen zen. 1958an ireki zen Goiko. Edarien prezioak gogoan ditu.

19. Goikon gertatutako anekdota

- **Erref**: ZUM-111/026
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:52:43. **Bukatu**: 00:54:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Goiko tabernan gertatutako anekdota. Bazen diruz nahiko larri ibiltzen zen bezero bat. Porroi txikiaren salneurria igo zuten baina gizon honi berdin kobratzen jarraitu zuten. Beste bezero batek jakin zuenean, haserretu eta ez zen gehiago itzuli.

20. Lehengo eta oraingo tabernako ohiturak

- **Erref**: ZUM-111/027
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:54:43. **Bukatu**: 00:58:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
Aitak alondegian ardoarentzat almazena zeukan eta dendetara saltzen zuen. Errioxatik ekartzen zuen ardoa. Lehen ardogintza naturalagoa zen, ez zegoen hainbeste aurrerapen. Orain dena kontrolatua dago. Lehengo eta oraingo tabernako ohiturak: lehen ardo gehiago edaten zen, orain garagardoa ohikoagoa da; txikiteoa desberdina da; kafe "konpletoa"... Etxeko jatorduetan ere ardo botila ez zen falta izaten.

21. Zinemako irteeran, taberna topera

- **Erref**: ZUM-111/028
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:58:43. **Bukatu**: 01:01:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Txikiteoa, orain bezala, tabernatik tabernara egiten zen. Kuadrilla handiak ibiltzen ziren. Zinemako irteera orduetan topera betetzen zen taberna. Oraindik ere batzuetan amesten du mostradorea jendez beteta daukala eta basorik ez. Edalontziei orain baino balore gehiago ematen zitzaien, ez baitzegoen gaur egun bezainbeste.

22. Goiko, taberna herrikoia

- **Erref**: ZUM-111/030
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 01:02:56. **Bukatu**: 01:06:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
1968an ezkondu zen Maria Antonia, orduan utzi zuen Goikoko lana. Gerora kafetera ere ipini zuten. Oso taberna herrikoia izan da Goiko. Telefono publikoa zeukaten. "Bodegón Goiko" egurrezko kartela Clamades Blancok egin zuen. Anaiak erosi zuenean, berriztu eta orduan ipini zen ostatua, 2001ean.

23. 12 urtetatik Goikon lanean

- **Erref**: ZUM-111/032
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 01:07:29. **Bukatu**: 01:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
12 urterekin ikasketak utzi eta Goiko tabernan lanean hasi zen, familiari laguntzeko. Hasieran eguerdietan itxi egiten zuten. Egur-ikatzezko sukaldea zeukaten, gerora gasezkoa ipini zuten. Kanpoan parrilla ere eduki zuten. Baina gehienbat ogitarteko hotzak edukitzen zituzten. Sardinak Galiziatik ekartzen zituzten. Kafea asko saltzen zuten, fama ona zeukan.

24. Erribera kaleko tabernak

- **Erref**: ZUM-111/034
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:12:13. **Bukatu**: 01:14:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:
Erribera kaleko tabernak: Justa, Txikito Artadi, Metro, Cantábrico, Goiko, Aginagalde, Etxabe IV, Hotel Zumaia. Beheko plazan: Ulazia, Astonekoa. Errotakua. Xaharrenekua.

25. Erribera kaleko dendak

- **Erref**: ZUM-111/035
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 01:14:04. **Bukatu**: 01:17:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:
Erribera kaleko dendak: Foto Gar, Galdona burdindegia, Berastegi frutategia, Korta okindegia, "linternerokua" arropa denda, Alberdi gozotegia. Bankuak. Balenziaga zapata-denda. "Kojuenekua" burdindegia (Mujika).

26. "Joanita Kiriki" eta beste gozoki-saltzaileak

- **Erref**: ZUM-111/036
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 01:17:15. **Bukatu**: 01:19:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:
"Joanita Kiriki" gozoki-denda Erribera kalean zegoen. Ke usain handia egoten zen dendan. Umeek bihurrikeriak egiten zizkioten. Ze gozoki erosten zituzten. Justako izkinan Frantzixkak fruitu lehorrak saltzen zituen. "Txurre"-ren aitak barkilloak saltzen zituen. Joanitak denetik edukitzen zuen, baita arrautzak ere.

27. Umetako jolasak

- **Erref**: ZUM-111/037
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 01:19:48. **Bukatu**: 01:24:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Txintxarrika: txingoan harria eraman behar izaten zen. Harriaren ordez betun-kaxa lortzea gauza handia izaten zen. Kukuka. "Korta ikutu eta libre". Sokasaltoan "a bikos". Mutilak kaniketan, zibarekin eta txapetan. Pilotarekin. Kanta denak gazteleraz ziren. Mando-mandoka. Neskek gonarekin ezin zuten jolastu.

28. Dotrinako ibilaldira joateko baldintzak

- **Erref**: ZUM-111/039
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 01:24:12. **Bukatu**: 01:27:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:
Dotrinatik ibilaldia egiten zuten kurtso bukaeran. Horretarako, igandean parrokiko meza nagusira eta bezperetara joan beharra izaten zuten. Gainera mojetan zebiltzanak bertako mezetara ere joan beharra izaten zuten. Beraz, igandetan 4 meza juntatzen zitzaizkien. Gero dotrinan galdetu egiten zieten eta batzuetan gezurra esaten zuten. Igeldora joan ohi ziren. Behin Donostiako portuan itsasontzigintzako erakusketa bat zegoen eta Zumaiako Carmelo Unanue bertan zegoenez, ume guztiei antxoen ogitartekoak banatu zizkien. Aquariumera ere joan ziren.

29. Santiago hondartzara jende dotorea

- **Erref**: ZUM-111/040
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 01:27:48. **Bukatu**: 01:31:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Izebak Santiago hondartzan kantina zeukan. Orduan jendea ez zen egun osorako joaten, eguerdian etxera joan ohi zen bazkaltzera. Zestoako bainuetxetik jende dotorea joaten zen hondartzara. Forondako markesa ere joaten zen Santiagora. Izebak aldagelak ere bazituen eta markesak bere aulkiak han gordetzen zituen. Umeei aulkiak eramateagatik propina ematen zien. Ez da oso hondartza zalea izan baina bai igerian egitekoa. Arranplan edo Abascaleneko eskaileretan igeri asko egin izan du. Txaluparekin errioa gurutzatzen bi anaia ibiltzen ziren, Jacob eta Miguel Manterola. Kantinan zerbait falta zenean, umeak bidaltzen zituzten erostera.

30. Tabernetan izozkailurik ez

- **Erref**: ZUM-111/041
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 01:31:23. **Bukatu**: 01:33:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Cantábrico tabernan izotza egiten zuten. Orduan ez zegoen izozkailurik eta tabernako baldintzak zailak ziren. Ogi kopuruarekin asmatzeko ere komeriak izaten zituzten batzuetan.

31. Ordukoa "benetako" ogia zen

- **Erref**: ZUM-111/042
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 01:33:05. **Bukatu**: 01:34:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Orduko ogia hobea zen. Aitona eta osaba okinak ziren. Goiko plazan hainbat okindegi zeuden eta antza eman zitekeen ogi bakoitza nongoa zen. Goizeko ordu bietarako lanean hasten ziren okinak.

32. Amaginarrebaren gerrako oroitzapenak

- **Erref**: ZUM-111/044
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 01:35:42. **Bukatu**: 01:39:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Senarraren ama, hiru umerekin eta haurdun, Zumaiatik bidali egin zuten, beste emakume batzuekin batera. Durangon zeudela bonbardaketa tokatu zitzaien. Jauregi batean babestu ziren. Zumaiara bueltatu zirenean ez zeukaten ezer.

33. Nazionalak etxean

- **Erref**: ZUM-111/046
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:40:29. **Bukatu**: 01:41:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Aitaren arrebak josteko makina zeukan eta nazionalak sartu zirenean txapelak brodatzeko agindu zioten. Aitaren saxofoiarekin tabernaz-taberna ibili omen ziren; osaba, mutikoa, atzetik jarraitzen ibili zen eta mozkortu zirenean saxofoia korrika etxera bueltan eraman zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com